

SAGARDOA PLAZARIK PLAZA

06 iraila, 2018

Motzean

115



Sagardoaren kultura sustraitu eta gozatzeko ekitaldiak izango dira Beasainen eta Ordizian.

Irail bukaera-urri hasiera da sagardo egiteko garaia, handik hiru-lau hilabetera, negu bete-betean, ziritik lehen tragoak jotzeko. Denboraldia bukatzearekin batera botilaratzea dator, eta gero, uda partean, dastaketak izaten dira plazetan nonahi eta noiznahi.

Aurtengo irailean, Ordizian eta Beasainen izango dira hitzorduak. Lehenean badira urte batzuk Sagardo Eguna antolatzen dutela Euskal Jaien barrenean, eta azken bietan, gainera, Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finalaurrekoetako bat hartu duen herria izan da. Laugarren edizioko kanporaketa batek ondoko herrira egin du jauzi aurren, eta Beasainen jokatu da, irailaren 8an.

Sagardogile elkartearen helburuetako bat sagardoaren kultura zabaltzea da, eta hortik dator, herriak txandakatzen aritzea. Horrez gain, Txerriboda eta Sagardo Festa egingo dituzte irailean bi herrietan.

Dastatu eta iritzi eman

Bilatu

AZKEN

ALBISTEAK



SAGARDOA PLAZARIK PLAZA

06 September, 2018



DENAK AXARI BILA KORRIKA

05 September, 2018



TARTALOETXEK 25 URTE

04 September, 2018



MAIDER DEL OLMO ETA ANE

AZURMENDI

03 September, 2018



KOBAN MUSIKA TALDEA: GAUEKO

IZAKI BIHURRIAK

03 September, 2018